




LARRUAZALPEKO FARMAKOENTZAKO ERROTazio-ORRIA

Aurreko azalera


Jarraibideak: markatu x batez injekziorako erabili duzun laukiaren espazioa. Errotazio-jarraibide asko daude. Horietako bat da injekzioak biratzea eremu bat osatu arte. Hori egin ondoren, eraman gorputzeko beste eremu batera. Horrela, biraketa egin ahal izango da injekzio-guneetan, eta eremu osoak agortu eta errepikapenak saihestu, gorputzeko eremu guztiak agortu arte. Gogoratu injekzio-tokien errotazio-eredua idatzi behar duzula egunero, eta arazoren bat izanez gero, jakinarazi zure medikuari edo erizainari





Atzeko azalera

Jarraibideak: markatu x batez injekziorako erabili duzu lauki sarearen espazioa. Errotazio-jarraibide asko daude. Horietako bat da injekzioak biratzea eremu bat osatu arte. Hori egin ondoren, eraman gorputzeko beste eremu batera. Horrela, biraketa egin ahal izango da injekzio-guneetan eta eremu osoak agortu eta errepikapenak sihestu, gorputzeko gainerako eremu guztiak agortu arte. Gogoratu injekzio-tokien errotazio-eredua idatzi behar duzula egunero, eta, arazoren bat izanez gero, jakunarazi medikuari edo erizainari.





BOTIKA EZ EMAN ETA ERREUMATOLOGIAKO ERIZAINZAKO KONTSULTARA DEITU

Honako egoera hauetan:

1.-**Sukarra** edo infekzio bat iradokitzen duen beste sintoma bat: eztul iraunkorra, bularreko mina eztul egitean edo arnasa hartzean, muturreko nekea, pixa egitean erremina sentitzea. Eskatu zure Lehen Mailako Arretako medikuaren balorazioa eta galdetu espezialistari.

2.- Aurreikusitako **ebakuntza kirurgikoa**.

3.- **Txertoak**:

Txertaketa infekzioak murrizteko estrategia bat da.

Kontraindikatuak daude mikroorganismo biziekin eta/edo indargabetuekin egindako txertoak.

Bestalde, tratamendu horiek txertoaren eraginkortasuna murriztu dezakete, eta, beraz, adierazitako txerto batzuetan, aldaketa batzuk egin behar dira medikazioaren jarraibidean.

Pazientearen bizikide guztiek eguneratuta izan behar dute txertaketa-egutegia..

Pneumokokoaren, B hepatitisiaren eta gripearen urte bakoitzeko txertaketa gomendatua.

4.- **Haurdunaldia**:

Haurdun geratzeko asmoa baduzu, edo tratamendua egin bitartean farmako biologiko horiekin gertatzen bada, erreumatologoari jakinarazi behar diozu. Amagandiko edoskitzea eman aurretik ere kontsultatu behar duzu.

ARABAKO ESIAREN ERREUMATOLOGIAKO ERIZAINEN TELEFONOAK

602 Kontsulta: **945 00 75 63**

615 Kontsulta: **945 00 75 76**

Jasotako informazioa: Larruazalpeko terapien eskuliburua gteserraren erreumatologian (SEReko Erizaintzako Lantaldea), 2020an argitaratua.

Espainiako Erreumatologia Elkartearen liburuxkak. Farmakoen prospektuak.